

«Jokalari garrantzitsua» izan nahian

Gari Urangarekin solasean ▶ 4



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteartea ▶ 2006-10-10 ▶ IV. urtea ▶ 983. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Kartzela zigorra bi urtera murriztu du Fiskaltzak Ibarraldeko epaituentzat

EPAIA ▶ Fiskalak eta defentsak lortutako akordioari esker, 96 eta 16 urteko zigorra jaitsi dute

KALEAN ▶ Aurrekaririk ez dutenez, ez dute kartzelan bete beharko ezarri dieten zigorra ▶ 6

TOLOSA ▶

Aralar taldearen lehen porrota, etxetik at

68-67 galdu zuten Universidad Deusto-Loiola taldearen aurka ▶ 2

AMEZKETA ▶

Iker Karrerak 3. postua eskuratu du Espainiako Kopan

Sabiñanigoko azken proban 7. egin zuen mendi lasterakariak ▶ 5

TOLOSA ▶

Tolosa futbol taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu du

0-2ko emaitzarekin gailendu zen San Ignacioren aurka «erraz» ▶ 2



Italiara urrezko dominaren bila

TOLOSA ▶ Isidro Larrañaga Akordeo Orkestrak Italiako Castelfidardora bidaiatuko du gaur. Premio e Concorso Internazionale Citta di Castelfidardo delako lehiaketara. Bigarren aldiz ariko dira lehiaketa honetan, 1998an ere bertan izan baitziren. Orduan, zilarrezko dominarekin bueltatu ziren etxera eta orain urrezkoaren bila joango da talde tolosarra. HITZA ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Asteasuko Ondartza-Bitarte baserriak sei sari eramán zituen etxera Abelgorrien 37. Lehiaketan

Asteasuko Zabal-Rekondo eta Gurua-Goena, Alegiako Gorotzenea eta Aldabako Lopetegi ere sarituen artean ▶ 3



Ferialekua, larunbatean. N. URBIZU

TOLOSA ▶

Etxebizitzari buruzko kanpaina, abian

Gaur, 'El Forat' dokumentala ▶ 3



ARETO FUTBOLA ▶

Punturik ez Laskorainek, Astigarragako derbian

3-0 galdu zuten Nogalesen aurka; beste taldeek emaitza hobek izutu zuten

ERREDAKZIOA

Laskorain Ikastolako mutilek ezin izan zuten Ceramicas Nogalesen aurkako derbi gipuzkoarrean punturik lortu, eta 3-0ko emaitzarekin amaitu zen partida. Egizabal entrenatzailearen agindupean, Domentxe, Alonso, Telletxea, Saldias, Gil, Yustos, Barriola, Amatriain, Zubillaga eta Ezkiaga jokalariek aritu ziren.

Markagailuak adierazten duen baino «orekatuagoa» suertatu zen norgehiagoka Laskorain taldeak adierazi duenez. Derbia izaki bi taldeak arerioarekiko «errespetu handiz» kantxaratu ziren, «defentsan lan serioa burutu eta erasoan arrisku gutxi hartzeko asmoarekin». Laskorainekoen arabera, «arratsaldeko gako eraso posizionalan galdutako bi baloi izan ziren»; izan ere, bi baloi horiek esker Nogaleskoek bi kontraerasotan gol bana sartu zituzten. Baina, partida maldan gora izanagatik ere, laskoraindarrek lanean «fin» jarraitu zuten, eta gol aukera dezente sortzeko gai izan ziren, baina ez zituzten gauzatu. Gainera, azken minutuan, Nogalesek hirugarrena egin zuten beste kontraeraso batean.

Bestalde, Kirol Elkarteak beste taldeei dagokionez, gauzak askoz hobeto joan ziren horitxoentzat. David Pradosen neskek bigarren garaipena lortu zuten jarraian, 4-0, hain zuten. Lasalleren aurka. Jorge Alonso Mourinhoren filialak, berriz, 5-0 irabazi zuten Jostaldi taldearen aurka.

iragarki laburrak ▶

LANA

Gidariak. Libre dauden lanpostuak betetzeko behar dira: Eusko Jauriaritza, udalak, erakunde publikoak. 943 31 37 82.
Harreragileak-administrari laguntzaileak. Erakunde publikoetarako behar dira. 943 31 37 82.

FUTBOLA ▶

0-2ko garaipena lortu du Tolosa CFk San Ignacioren aurka

Partida osoaren kontrola tolosarrek izan zuten; hurrengo UPVren aurkakoa izango da, etzi, 16:30ean, Berazubín

IÑIGO TERRADILLOS

San Ignacio taldearen aurka jokatu zuen Tolosa CFk larunbatean, eta denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen, 0-2ko emaitzarekin gailendu baitziren tolosarrek.

Partida osoan zehar Tolosak mendearen hartu zituen arerioak, baina hori, bereziki, lehen zatian nabarmendu zen. Gorka Etxeberria entrenatzaileak hasieratik itxura ona hartu zion norgehiagokari, baina dena den, «partida amaitu arte ez genuen garaipena ziurtzat hartu, izan ere, maila honetan talde guztiek kalitate handia dute, ezin dugu fidatu». Hala, partidako bi golak lehenengo zatian sartu zituzten tolosarrek; lehendabizikoa Gibelalderen eskutik iritsi zen, baina segituan utzi beharra izan zuen zelaia eskumuturra hautsi egin zuelako, eta baja izango da hilabete edo hilabete eta erdiz. Bigarrena, berriz, Rinconek sartu zuen.

Lehenengo zatian bezala, Tolosak izan zuen bigarreneko jokoaren kontrola, baina honekin San Ignacio taldea gehiago saiatu zen, eta erasoari ekin zion. Dena den, entrenatzaileak azaldutakoaren arabera,



Beasaiaen aurka jokaturako partidaren une bat. NEREA LIZARTZA

SAN IGNACIO ▶ 0

TOLOSA ▶ 2

Hasierako hamaikakoa.

Apeztehea (atean); Josu, Iban, Ekhi eta Jon Txiki (defentsan); Kamio eta Romero (erdialdean); Orue, Balerdi, Rincon eta Gibelalde (aurrealdean).

Aldaketak. Elola (Gibelalderen ordez); Goikoetxehandia (Josuren ordez); Gorka Blanco (Balerdiaren ordez).

Golak. 0-1: Gibelalde; 0-2: Rinconek.

«seriotasunez, eta lan ona eginenez» aurre egin zieten defentsan. Partida tolosarren aldeko emaitzarekin amaitu zen.

Gorka Etxeberria entrenatzailea gustura azaldu da garaipena lortu ostean; «gustura nengoen taldea egiten ari zen lanarekin, baina era berean gogorra ari zen egiten ez irabaztea». 7 punturekin, 13. postuan dira horrela tolosarrek. Hurrengo partidari dagokionez, zubia dela eta, aurreratu egin dute, eta etzi jokatu dute etxean. 16:30ean izango da, Berazubi estadioan, UPV eta Tolosaren arteko derbia ikusteko aukera.

SASKIBALOA ▶

Denboraldiko lehen porrota erdietsi du Aralarrek Universidad Deustoren aurka

68-67 galdu zuten partida; lagarren postuan dira tolosarrek

ERREDAKZIOA

Universidad Deusto-Loiola jaitsi berriaren aurrean denboraldiko lehen porrota jasan zuten Aralar taldeko seniorrek igandean. Hain zuten ere, 68-67 izan zen azken emaitza. Aralarrek azaldutakoaren arabera, «ez ginen gauza izan arerioaren altuera eta intentsitatea gainditzeko».

Ondorengoak izan ziren norgehiagokaren partzialak: 12-20; 32-30; 44-45 eta 68-67. Universidad Deusto-Loiola taldeak ondorengo jokalariek osatu zuten hasierako bostekoa: Comonte (2), Telleria (21), Gastaminta (8), Azkona (9) eta Gaston (5); eta hauek dira, berriz, egin zituzten aldaketak: Benito (4), Nuñez (5), Arias (5) eta Alonso (9). Bestalde, Arala-

rreko hasierako bostekoa ondorengoak izan zen: Mikel txiki (5), Goar (26), Fernando (13), Haritz (8) eta Jon (2). Aldaketa hauek egin zituzten: Unai (0), Alberto (3), Iñigo (3), Joseba (0) eta Kaiet (7).

Jokatutako partidetan batutako puntuekin, lagarren postuan dira Tolosakoak, Tabirako Baque, Goierri Verkol eta UPV Alava taldeen atzetik.

FUTBOLA ▶

Tolosa Kup-en hirugarren asteburua iragan da

ERREDAKZIOA

Hauek dira larunbatean Tolosa Kup-en jokatutako partidaren emaitzak: Transporte eskolar eta Txoko txikiaren artekoa 1-7, Zaleak eta Elorriren artekoa 1-2, Itaieti eta Samberoak 0-2, Ordago eta Pubkung fu 3-1 eta Plaza Cristales eta Itzuli taberna 5-1.

Igandean, berriz, 5 partida jokatu zituzten txapelketaren baitan: Sinsalus eta Itzuli tabernaren artekoa 1 eta 3 amaitu zen; URT eta Ekaitz taldeen artekoa 3-1 bukatu zen; Recambios Ibarra eta Amaro taldeen artean jokatutakoa 2 eta 4 bukatu zen; Igaratz taldea 3 eta 1 gailendu zen Como pollo sin cabeza taldearen aurka, eta Pub Txanpak 1 eta 3 galdu zuten Danon Txokoa taldearen aurka.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irrua.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaro zko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

AZOKA ▶

Eskualdeko aziendak ere, sarituenen artean

Gipuzkoako Abeltzari Lehiaketan, Tolosaldekoen artean, Asteasuko Ondartza-bitartek eraman zituen sari gehien



Gipuzkoako 37. Abeltzari Lehiaketan jende ugari bildu zen. N. URBIZU

ESTI EZEIZA

Iragan larunbatean jokatu zen Gipuzkoako 37. Abeltzari Lehiaketa. Bertan, eskualdeko hainbat baserrietako azienda izan zen lehian, sari ugari Tolosaldean geratu zirelarik.

Eskualdekoen artean, Asteasuko Ondartza-Bitarte baserria izan zen garaipen gehien lortu zituena. Hauek, Frisoi arrazako behien atalean lehian izan ziren. Alegiako Gorotzenea baserrikoek ere emaitza onak lotu zituzten, Suitzar arrazan barna zeuden hiru azpisaila-

tik bitan, garaipena lortu baitzuen.

Sail nagusiko txapelketaz gain, beste hainbat sari ere banatu ziren larunbatekoan. Frisoi arrazakoen artean, esaterako, Asteasuko Ondartza-bitarte baserriak, Aberekingo eta Gifeko saria irabazi zituen. Bestalde, Frisoi Txapelketa handiaren Conafe garaikurra ere beraien eraman zuten.

Txapelketatik at, Txaroles arrazako behiak ere izan ziren ikusgai Ferialekuan. Bidegoango bi baserrietatik eraman zituzten abereak, Osiondotik eta Arretxetik. Lehenengoak adin ezberdinetako bost abeltzari eraman zituen, eta bigarrenak beste bost.

Lehiaketatik kanpo ere, Gipuzkoan jaio eta hazitako bigantxak jarri ziren salgai azokan, enkante bidez. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak 150 eta 300 euro bitarteko diru-laguntza eman zieten, buru bakoitzeko, ganaduzaleei.

GIZARTEA ▶

'El forat' dokumentala izango da ikusgai, gaur

Euskadiko Gazteria Kontseiluak antolatutako ekintza da hau

E. EZEIZA

Euskadiko Gazteria Kontseiluak, Tolosako Gazteria departamentuarekin batera, etxebizitzaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu. Izan ere, etxebizitza duin baterako sarbidea, euskal gazteriak gaur egun daukan arazo larrienetako bat da. Hala, gazteen hitza zabaldu ahal izateko, hainbat egitasmo jarri dituzte martxan. Horien artean, gaur, 19:30ean, *El forat* dokumentala izango da ikusgai, Kultur Etxean. Bihar, berriz, toki eta ordu berean *Gazteok eta etxebizitza* izenburupean hitzaldia izango da entzun-gai.

Bestalde, gazteek Javier Madrazo etxebizitza sailburuari eta Jokin Bildarratz Sorron Tolosako Alkateari, beren iradokizun, kezka eta kritika nagusiak azaldu ahal izango dizkiete postaz. Horretarako Kultur Etxeko topagunera gerturatu eta bertan dagoen postontzian utzi ahal izango dituzte, posta txartel ereduak Kultur Etxean dardelarik. Honela, txartelaren idazkia eta bidalketa egunero Tolosako Gazte Informazio Bulegoan egin ahal izango da.

Euskadiko Gazterien Kontseiluak martxan jarri duen beste egitasmoetako bat, foro birtualarena izan da. www.egk.org/hartuhitza gunearan helburua etxebizitzarako sarbidean gazteek dituzten esperientziak eta ardurak jaso eta isladatzearena da.

ABELGORRIEN BANAKETA TALDEETAN ▶
SUITZA ARRAZAKOAK
18-36 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).

1. Zuloaga baserria (Zumarraga).
2. Ollurta baserria (Hondarribia).

2 urtetik 4 urte eta erdi bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).

1. Gorotzenea baserria (Alegia).
2. Zuloaga baserria (Zumarraga).

4 urte eta erditik gorako behiak (ume egindakoak).

1. Gorotzenea baserria (Alegia).
2. Gorotzenea baserria (Alegia).

FRISOI ARRAZAKOAK
12-18 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).

1. Ondartza bitarte baserria (Asteasu).
2. Ondartza bitarte baserria (Asteasu).

18-30 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).

1. Ondartza bitarte baserria (Asteasu).

2. Ondartza bitarte baserria (Asteasu).

2 urtetik 3 urte bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).

1. Ondartza bitarte baserria (Asteasu).
2. Ondartzarte baserria (Igeldo).

3 urtetik 4 urte bitarteko behiak (ume egindakoak).

1. Gurua-goena baserria (Asteasu).
2. Zabal-rekondo baserria (Asteasu).

4 urtetik 5 urte bitarteko behiak (ume egindakoak).

1. Ondartzarte baserria (Igeldo).
2. Zabal-rekondo baserria (Asteasu).

5 urtetik gorako behiak (ume egindakoak).

1. Ondartza-bitarte baserria (Asteasu).
2. Arantzamendi baserria (Mutriku).

BLONDA ARRAZAKOAK
12-24 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).

1. Eizmendi baserria (Azpeitia).
2. Agite baserria (Azpeitia).

2 eta 3 urte bitarteko bigarak.

1. Eizmendi baserria (Azpeitia).
2. Agite baserria (Azpeitia).

3 urtetik 4 urte eta erdi bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).

1. Agite baserria (Azpeitia).
2. Agite baserria (Azpeitia).

PIRENAIKA ARRAZAKOAK
10-20 hilabete bitartekoak (ume egin gabeak).

1. Ibargoien baserria (Irun).
2. Prontxio baserria (Idiazabal).

20-30 hilabete bitartekoak (ume egin gabeak).

1. Prontxio baserria (Idiazabal).
2. Aritz eder baserria (Idiazabal).

2 urte eta erditik 5 urte bitarteko behi gazteak (ume egindakoak).

1. Prontxio baserria (Idiazabal).
2. Ibargoien baserria (Irun).

5 urtetik gorako behiak (ume egindakoak).

1. Aritz eder baserria (Idiazabal).
2. Iñarre azpikoa baserria (Bergara).

LIMOUSIN ARRAZAKOAK
12-24 hilabete bitarteko bigarak (ume egin gabeak).

1. Donardegi baserria (Urretxu).
2. Urki baserria (Beizama).

2 urtetik 3 urte bitarteko bigarak (ume egin gabeak).

1. Zelai-haundi baserria (Usurbil).
2. Lopetegi baserria (Aldaba).

3-4 urte eta erdi arteko behi gazteak (ume egindakoak).

1. Lopetegi baserria (Aldaba).
2. Zelai-haundi baserria (Usurbil).

4 urte eta erditik gorako behiak (ume egindakoak).

1. Urki baserria (Beizama).
2. Zelai-haundi baserria (Usurbil).



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitzza.nfo

GARI URANGA ▶ REALEKO JOKALARIA

«Realean jokalaria garrantzitsua izan nahi dut»

Deportivoren aurkako partidatik kanpo gelditu arren, denboraldi txukuna ari da egiten Ibarako erdilaria

XABIER LOPETEGI (Berria)

Gauzak gaizki doazenean, hau da, baloia aurkariaren atean sartu ez eta norberarean gehiegi sartzen denean, komunikabide gehienek jokalaria jakin batzuegana jotzen dute. Horietakoa bat Gari Uranga da. Beharbada, gauzak diren bezala esaten dituelako eta beste batzuk baino diskurtso osatuagoa daukalako. Deportivoen aurka, ustekabea, deialditik kanpo geratzeagatik izan da arreta iturri, baina horri garrantzia kendu, eta lehen garaiaren azpimarratu du: «Zaragozaren aurka irabaztera derrigorputa daude».

Lehen lau partidetan titular izan ostean, deialditik geratu zinen kanpo aurreneko aldiz. Ahaztuta neukan sententzia hori, egia esan, aspaldian ez zitzaidalako gertatzen. Kolpe gogorra izan zen niretzat. Ustekabea, batez ere. Ez nuen pentsatzen kanpoan geldituko nintzenik, baina entrenatzaileak gauzak aldatu nahi zituen, eta aurretik beste batzuei tokatu zaien bezala, orain niri tokatu zait.

Batzuen iritzi, onenatarikoa izaten ari zinen. Recreativoren aurka gola sartu zenuen, esaterako. Beti ematen zaio meritu handiagoa gola sartu duenari, baina, partida aztertuta, agian ez nuen entrenatzaileak eskatu zidana egitea lortu.

Gogoan duzu noiz gelditu zinen deialditik kanpo azkeneko aldiz?

Lesioak alde batera utzita, 2004ko otsailean izan zela uste dut. Tolosako inauteriak zirelako gogoratzen dut.

Horrelakoak gertatzen direnean, jendea kirolaz kanpoko arazoietan pentsatzen hasten da, baina halakorik ukatu duzu.

Zurrumuru asko atera eta iritsi zaizkit. Bakerorekin daukadan harremana jokariaren eta entrenatzailearen artekoa baino gehiago dela esango nuke, elkarrekin oso ondo konpontzen gara. Ez dago inongo arazorik, argi esan behar da hori. Deialditik kanpo geratzeak ez zidan graziaz egin, deiei gertatzen zaigun bezala, baina normala da.

Partida telebistaz ikustea zer zen ahaztuta zenuen?

Bai. Egia esan, telebistatik ikusita konturatzen zara zer zaila den zalea izatea eta animoak ematea, zenbat sufritzen den. Etxean ikusi nuen, eta nahiko gaizki pasatu nuen.

Taldearen egoera ez da norberaren kezkei erreparatzeko modukoa ere, ezta?

Ez. Kontu honen inguruko hainbeste galdera entzutea ez zait gustatu, polemika sortu delako nire kontura. Taldea gaizki dago, eta gauza pertsonal alde batera utzi behar dira, hau talde kirola delako.

Zer moduz ikusi zenuen taldea Deportivoren aurka?

Partida gehiena ondo jarrita egon zen, eta Deportivoekin ezin izan zuen ezer egin. Horretan ez gara hain itxura txarra ematen ari, baina, nire iritzi, agian

kontzentrazioa galtzen dugu minutu pare batean eta kontrarioek hori aprobetxatzen dute gola sartzeko. Kontuan hartu behar da, bestalde, gure aurka jokatu duten bost taldeetatik lau lehen sei postuetan sailkatuta daudela.

Uneko akats horiek joan den denboraldian ere gertatzen ziren.

Bai. Partidak kontrolaturik dauzkagu, baina pixka bat lasaitu orduko iristen dira arazak. Buruan sartu behar dugu hori.

Hamabost puntutik bakarra. Kezkatzeko modukoa da?

Bai. Argi dago. Jokoa ere ez da izan nahi eta uste genuena. Hurrengo asteburuan daukagu aukera lasaitzeko, Zaragozaren aurka. Etxean irabazi behar dugu, hasieratik esan dugu, eta horri eusten diogu. Derrigorputa gaude.

Helburuez hitz egitea merezi du une honetan?

Ez. Lehen bait lehen emaitza on pare bat lortzea izan behar du gure helburuak, konfiantza hartu eta gure benetako neurria emateko. Horrelako dinamika batean sartzen zarenean, zaila da buelta ematea. 26 urterekin sarritan bizi ditut horrelakoak. Lehen bait lehen lortu behar dugu.

Erasoan freskotasuna falta zaio taldeari?

Dena ari gara gaizki egiten. Erasoa eta defentsan talde lana falta zaigu, denok batera defenditzea eta gorantz egitea. Hori ari zaigu faltatzen, bi tokitara iristea.



I. TERRADILLOS

ENTRENATZAILEA

«Bakerorekin daukadan harremana jokariaren eta entrenatzailearen artekoa baino gehiago da»

EUSKAL SELEKZIOA

«Bada garaia euskal selekzioaren aldeko pauso bat emateko. Guk ahal dugun guztia egingo dugu»

Erantzukizuna hartu behar duten jokariak unerik onenean ez egoteak badu eraginik?

Agian. Kovacevic ari da pixkanaka puntu onenera ailegatzeko, eta Skoubok gauza asko emango dizkigu oraindik. Prietok lesio pare bat eduki ditu, eta ez dago sasoi onenean. Eta Aranburu segidan jokatzen hasi eta mailarik onena berreskuratzen duenean, asko nabarituriko da. Beti esan dut jokalaririk garrantzitsuenak dela guretzat, ez dago alor guztiak berak bezain ongi menderatzen dituen inor.

Aldageletako giroa ona dela azpimarratu izan duzu.

Bai. Irratian entzun nuen barruko giroa kaskarra zela, ez dakit zer... eta harrituta gelditu nintzen, ez daukalako ez hanka ez buru. Oso harreman ona daukagu, eta indar horrekin aterako gara aurrera.

Askoren iritzi, zu taldeko onena izatea ez da seinale ona. Ados?

Ez dakit, bakoitzak bere iritzia dauka. Argi neukan denboraldi honek nire denboraldi izan behar zuela. Denboraldi-aurrean erakutsi nuen une onen nagoela. Jokalaria garrantzitsua izan nahi dut, argi daukat hori, baina seguru taldeko jokari-

rik garrantzitsuenak agertu egingo direla.

Rivasekin jokatu zenuen Getafen. Nolako fitxaketa iruditzen zaizu?

Sekulako lana egiten du, eta gauzak erraz egiten ditu. Badauki zeintzuk diren haren mugak. Azkarra da, horiek onartu eta bere gauza onenak ezin hobeto aprobetxatzen dituelako.

2008 arte daukazu kontratua. 26 urterekin, aurrerapauso bat emateko garaia iritsi zaizue zuri eta Labaka eta Alonso jokalariei?

Bai, zerbaitegatik gaude hemen, eta bakoitzak bere erantzukizuna hartu beharra dauka. Dagoeneko ez dauzkagu 20 urte. Belaunaldi horretako jokariok inportanteak izan behar dugu, eta seguru lortuko dugula.

Batzuentzat aurrerapauso izan da Euskadi eta Kataluniaren arteko FIFA egutegian jokatzea. Beste batzuk ez dituzte asebaketak. Non katu duzue zure burua?

Gu euskaldunak gara, eta beti eskatuko dugu ofizialtasuna. Gure partetik ahal dugun guztia egingo dugu. Bada garaia euskal selekzioaren aldeko pauso bat emateko. Partida hauek aprobetxatu behar ditugu gure ideoak zabaltzeko.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

AMEZKETA ▶ MENDI LASTERKETA

Iker Karrerak Espainiako Kopako 3. postua lortu du

Sabiñanigoko proban zazpigarren izan zen eta nagusian garaikurra irabazi du

NEREA URBIZU

Iker Karrera mendi lasterkari amezketarrak Espainiako Kopako 3. postua lortu zuen atzo. Sabiñanigoko (Aragoi, Espainia) proba 7. bukatu bazuen ere, merezitako garaikurra lortu zuen. 3 ordu eta 33 minutu behar izan zituen lasterketa burutzeko.

Sabiñanigoko Puyada a Oturia izenekoa izan zen lasterketa, 38 kilometrokoa. Korrikalari amezketarraren arabera, «proba guztietan gogorrena izan zen igandekoa»: aurreko egunetan entrenamendu saioetan min hartuta zegoen, iztar bateko muskulu abduktorea ez zuen osotara ondo, eta hori somatu egin zuen. «Ahal nuen guztia egin nuen, baina lesioa errekupeatu gabe nuen eta entrenamenduak ere ezin izan ditut nik nahi bezala burutu: txispa hori falta nuen, bestee-tan izan nuen, alegia», zioen Iker Karrerak.

Aurrekoetan TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK jakinarazi zuen bezala, lehenik Raul Garcia madrildarra geratu zen nagusian, eta baita Sabiñanigon helmugaratu ere. Berdin egin zuen Tofol Castanyer katalanak: bigarren nagusian, eta baita igandeko lasterketan ere.

Euskal Selektzioan dabilen lasterkariak «gustura, lasai» egin zuen Espainiako Kopako laugarren proba, aurrekoetan lortutako emaitzak oso onak baitziren. Espainiako Kopako hiru emaitzarik onenak hartzen dituzte kontuan sailkapen nagusirako, «eta azken hone-tan, nahiz eta iztarrean mina izan, eta aurreko hiru probetan emaitza onak lortu, dena eman nahi izan nuen». Horregatik, dio korrikalariak, «igandeko



Iker Karrera, Raul Garcia, aurtengo Espainiako Kopako irabazlea eta eskuinean Tofol Castanyer. HITZA

proba denetan gogorrena izan zen: alde batetik lesioa, bestetik, formaz, eta gero sortzen zaizun kezka: hogeigarren bukatu nezakeen, baina dena ematera joan nintzen».

Palentziako (Espainia) proban puntu mordo lortzeak asko lagundu zion; hori egin ondoren, atzetik zituenak gehiago urrundu ziren, aldeak areagotuz.

Korrikalari euskaldunek ondo bukatu dute Espainiako proban: Fernando Etxegaraiek 8. bukatu du sailkapen nagusian, eta igandeko proba egin gabe geratu zen, belaun min hartu zuelako. Ifaki Lotepetek nagusian 9. amaitu

zuen. Emakumeen artean, Oihana Azkorbebeitiak bosgarren egin du.

Datorren urteko erronkak

Datorren urteari begira, ez dauka oraindik asmo argirik edo zehatzik. Izan ere, oraindik «ez daki euskal selektzioak berearekin jarraitzeko asmoa» duen, baina momentuz, merezi duen atsedena hartuko du, «beste erritmo eta modu batera ibiliko naiz». Amezketarrak ideietan ditu oraindik asmoak, «formarik gabeak, ezer zehatzik gabe eta oraindik ere ez dakit aukera izango dudanez, norik dakin».

IKER KARRERA
MENDI LASTERKARIA

«Igandekoa gogorrena izan zen, iztarreko lesio bat nuelako, eta ezin izan nuelako nahi bezala prestatu»

Gogoan hartzekoa da Iker Karrerak aurten egin duena: Espainiako Txapelketa alde batetik, Espainiako Kopa eta uztaillan Perdido mendira egindako igoera azkarra. Azken honekin marka berria ezarri zuen: lau ordu eta 48 minutuetan igo zuen Piriniotako mendia.

ASTEASU ▶

Udalaren eskutik adin guztientzako ikastaroak

N. URBIZU

Adin guztietarako ikastaroak antolatu ditu Asteasuko Udalak. Hiru urteetatik helduenen gustuak jorratzeraino. Guztietan izena emateko epea hilaren 13a izango da.

Haur hezkuntza, ludoteka eta antzerkia izango dira txiki-entzatat. LH eta helduagoek antzerkia, batukada, bertso eskola, eskulanak, zirko teknikak, solfeoa, trikitixa, panderoa eta txistua ikasi ahal izango dute. Helduentzako, aldiz, laboreak, eskulanak, egur taila, ingelesa, helduen heziketa, xaboi naturalak, batukada eta kantu saioak izango dira. Informazio gehiago 661 082 656 telefonoan lor daiteke.

ANOETA ▶

Beherapenak kiroldegiko ikastaro guztietan

N. URBIZU

Anoetako kiroldegian euskal dantzak, jarduera anitzak, aerobik, mantenu gimnastika, pilates, 3. adinekoentzako gimnastika eta areto dantzak ikasteko aukera dago.

Hiruhileko ikastaroa yoga-koa izango da. Kiroldegiko bazkideek %20ko beherapena izango dute ikastaroetan. Prezio bereziak honako kasuetan izango dira: familia ugarietan eta gazte txartela izatekotan. Orduetegi berri kiroldegian bertan lor daiteke, eta izen-ematea ostirala arte izango da.

iragarki laburrak ▶



San Francisco etorb. 47. beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: enria@enria.com
www.enria.com

Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.
Leaburu bidean. 600 m2ko pabiloa alokairuan, bi solairuetan banatua, 2.500 m2ko zelaiarekin.
Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta gainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.
Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Bizitzera sartzeko moduan.
Berokuntzarekin.
Berrobi. Estilo rustikoa (aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.
Amezketak, Gabiria, Hernialde, Ibarra. Hainbat etxe bifamiliarrak, adosatu eta eraikitzeko partzela.
Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.
Tolosa. Beotibar. 36 m2. Altua, 150.000 euro.
Tolosa. Alde Zaharra, 2 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela. Hainbat berrikuntza. 168.285 euro.
Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Igogailu proiektua onartuta.
Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, sukaldea, egongela, eta 2 bainugela.

Tolosa. Zumalakarregi. 92m2. 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berritua. Estreinatzeko. Garajeekin.
Tolosa. La Estrella. Oso egoera onean. Igogailu eta garajeekin.
Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, 4 logela. Igogailua. Garajea. Egoera ona.
Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berrian pisu altua. 100 m2. Garaje itxiarekin.
Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrentzat egokia.

IBARRA ▶

Bi eguneko kapoeira ikastaroa doan

Ibarrako kiroldegia kapoeira ikastaroa antolatu du urriaren 21 eta 22rako. Ordu-tegiari dagokionez, 10 eta 14 urte bitartekoek hilarren 21ean 16:30etik 18:00etara izango dute ikastaroa, hilarren 22an, berriz, 09:00etatik 10:30era. 15 urtetik aurrerakoek, berriz, 18:00etatik 19:30era joan beharko dute hilarren 21ean eta 22an 10:30etik 12:00etara. Interesatuak, 943 67 15 44 telefono zenbakira hots egin beharko dute.

BERASTEGI ▶

Digestioaren inguruko hitzaldia Gaztainondon

Kutxak antolatua eta Nazaret zentroaren laguntzaz, *Digestio zoriotsuak edo digestio astunak* lelopeko informazio jardunaldia izango da hilarren 18an 18:00etan Gaztainondo Jubilatuko elkartearen. Izaskun Arrillaga izango da hizlaria eta sarrera guztiz doakoa izango da. Jardunaldi honen helburua janariak digeritzeko prozesuan parte hartzen duten egiturak eza-gutzera ematea da.

IBARRA ▶

Artzaintzaren bizitza argazkitan Kultur Etxean

Pasa den astean jarri den abian Iñaki Vergara argazkilaria *Artzaintzaren Bizitza* izenpeko argazki erakusketara. Vergararen argazkiak hilarren 16ra arte egongo dira ikusgai Kultur Etxean, euskarazko nahiz erderazko testuez lagunduta. Txuri beltzezko 35 argazkiren bitartez, gure artekin desagartzen ari diren artzainak omendu nahi ditu Vergarak.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Garajea. Tolosan garaje ibxia salgai. Interesatuak deitu 943 65 25 81ra.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldirekin. 1995ekoa. 153.000 km, liburuarekin. 18ko gurpiletako hagunak eta tebuia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak, deitu 943 65 41 43ra.
Egurra. Sutarako pago egur lehorrak

IBARRA ▶ POLITIKA

Kartzela zigorra bi urtera murriztu du Fiskaltzak Ibarraldeko 8 epaituentzat

Goar Jimenezentzat urtebeteko zigorra ezarri du Espainiako Auzitegi Nazionalako Fiskalak; aurrekaririk ez dutenez, ez dute kartzelara joan beharko

MADDI SOROA

Hainbat kale eraso egitea leporatuta Ibarraldeko zortzi gazte epaitu zituzten atzo, Espainiako Auzitegi Nazionalan. Behin-behineko ondorioetan zigor eskaera handiak egin zituen Fiskaltzak, baina 2 urtera murriztu zituen atzo.

1999an eta 2002an Tolosaldean izan ziren hainbat kale erasorengatik epaitu zituzten; hasieran zigor eskaera handiak egin zituen Ignacio Gordillo fiskalak guztien aurka, «triskantza terroristak» egotzita eta «mozorroa erabiltzeak» delitua larritzen zuela iritziz. Hala, 96 urteko espetxe zigorra eskatu zuen Eñaut Garmendiaren aurka; 80koa Aritz Sudupentzat; 64 Ibon Aranalde eta Jon Otegiaren kontra; 48 Josu Ozaita eta Garikoitz Ibarluzaentzat; 32 Mikel Ozeitarentzat

eta 16 Goar Jimenezen aurka. Atzo, ordea, behin betiko eskaeretan 2 urtera jaitsi ditu fiskalak epaitutako zazpiren aurka eskaerak eta urtebetera Goar Jimenezen kontrakoak. Zortzi gazteetatik bat, Garikoitz Ibarluzea, ez zen agertu epaiketara, eta errebeldian epaitu zuten.

Epaiaketa 10:00etan hasia aurreikusia bazegoen ere, 12:00etan hasi ziren deklarazio ibartarrak. Epaiaketa bera izan zuten gazteek eta guztiak elkarrekin izan ziren auzigela, txandaka erantzun behar izan bazuten ere. Fiskala eta defentsaren artean lortutako akordioari esker, eta epaituriko gazteek ekintzetan aritu izana onartzeari esker, bi urte eta urte batera jaitsi da Ibarraldeko zigorra. Zigorren gutxitze hori burutzerakoan bi puntu nagusitan oinarritu dira defen-

tsa eta fiskala. Batetik, buruturiko ekintzetan kalteturiko pertsonik egon ez izana, hots, inoren bizia arriskuan egon ez zela. Bestetik, berriz, ekintzak burutzerako orduan identifikagarriak izatea, hau da, aurpegia estali gabe izan zutela.

Ibartarrek buruturiko ekintza guztiak lau urteren buruan izan zirenez eta modu berezuan gauzatu zirenez, «jarraitze ekintza» gisa definitu zituen fiskalak. Ekintza bakoitza bere aldetik aztertu izan balitz, 16 urteko zigorra bete beharko lukete epaituek ekintza bakoitzeko. Baina, fiskalak esan bezala, «ez zuten bizitzaren kontrako ekintzetan» parte hartu. Orain, sententziak esaten duenaren zain geratu beharko dute 8 gazteek, eta kondenaren berri izan eta gero, prozedura ejekutiboari ekingo zaio.

Bestalde, atzoko epaiaketa amaitu bezain laster Ibon Aranalde epaituetako batek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI adierazitakoaren arabera, «pozik gaude epaiarekin, ez baikoaz kartzelara». Hala ere, «epaiaketa irekia dago oraindik, sententziaren zain baikauden» gogorarazi zuen.

Senitartekoan agurra

Atzo iritsi ziren epaiaketa izandako Mikel eta Josu Ozaita, Goar Jimenez, Aritz Sudupe, Ibon Aranalde, Eñaut Garmendia eta Jon Otegi, Ibarralde, etxera. Bertan zituzten hamaika senitarteko eta adiskide ongioterrria emateko prest. Sendi Ekintza izan zen elkargue eta bertan izan zuten gazteek «laxtasun osoz» eta «pozaren pozez», epaiaketa nondik norakoak azaltzeko aukera.

IBARRA ▶ FUTBOLA



Emaitzarekin gustura etorri ziren Ibarraoak ebexera. MADDI SOROA

Aparteko garaipena lortu zuen Ibarra Gernikako taldearen aurka

Loitzunek eta Karrerak min hartu zuten arren pozik etxeratu ziren ibartarrak 4-5ekoarekin

ERREDAKZIOA

Zilarrezko Mailan aritutako jokalariz osaturiko Gernikako taldearen aurka jokatu zuen Ibarra, pasa den larunbatean. Garaipenak besterik ez ditu izan Gernikak orain arte; larunbatean, ordea, Ibarra izan zen nagusi 4-5eko emaitzarekin.

Igor Zabalo, Victor Silva, Unai Labaca, David Prados eta Ion Ander Karrera izan ziren zelairatu ziren lehen bost jokalariek. Aulkian zeuden Sinoe Sanz, Lander Kamio eta Xabier Blanch ere, aritu ziren ondorengo minutuetan.

Partida hasi bezain laister,

Ibarra aurpegia erakutsi zuen baina Gernika ez zen gutxiago izan. Bi taldeek, benetako areto futboleko ikuskizuna eskaini zuten, sekulako jokaldik eginez.

Ongi aritu zen Ibarra denfentsan, kontraeraso arriskutsuak ere burutu zituelarik. Lehen zatia amaitezako 2-1eko margailua ikus zitekeen. Bigarren zatian ez zen jokoan aldaketarik izan baina Ibarra 3 gol sartzearekin bat garaipena lortu zuen 4-5.

Datorren jardunaldiko partida larunbatean izan beharrean, ostegunean izango da 12:00etan, Belabieta kiroldegian.

MUSIKA ▶

Urrezko dominaren bila

Europako lehiaketa garrantzitsuenetako batean parte hartzeko asmoz abiatu dira gaur goizean Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako musikariak Italiara

NAIARA GARZIA

Ez da Tolosako Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra Castelfidardora joaten den lehenengo aldia, 1998an bertan izan baitzen. Orduan zilarrezko domina lortu zuten eta 8 urte beranduago lehenengo saria lortzea dute helburu. Aurtengo lehiaketa, urriaren 12 eta 15 bitartean ospatuko da, eta gaur bertan abiatuko dira, musikariak eta hauen jarraitzaileak, Tolosatik Italiaraino eramango dituzten bi autobusetan. Lehiaketaren iraupena 4 egunetakoa izan arren, larunbat eta igandean izango da tolosarren txanda, eta Pilareko Andre Maria zubia aprobetxatuz urriaren 16a arte izango dira guztiak kanpoan.

Castelfidardo Adriatikoko itsasoko kostatik gertu dagoen hiri da eta akordeoi munduan oso finkatuta dago; bertan instrumentu hau jotzeko tradizio handia izateaz gain, akordeoiak sortzen dituzten enpresa asko baitaude. Isitxo Larrañaga zuzendariaren ustez, «Premio e Concorso Internazionale Città di Castelfidardo delakoa European dagoen lehiaketarik garrantzitsuenetakoa da, eta nazioarte mailan herrialde askok hartzen dute parte», izan ere, Europako hainbat musikarientzat oso ongi kokatuta dago.

Aurtengo lehiaketan, ordea, eragozpen nabarmen bat izan du Tolosako orkestrak: orain arte parte hartu duten lehiaketan orkestra osoak elkarrekin jotzen bazuen, aurtengo hori ez da posible izango, arauak al-



Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako musikariak Hondarribian eskainitako kontzertu batean. HITZA

Arrakastaz beteriko 26 urteko ibilbidea

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra Isidro Larrañagak sortu zuen 1980. urtean. Urte honetan Kilometroak ospatu zen Tolosan eta kalea alaitzeko asmoarekin musika talde bat sortzea bururatu zitzaion. Hasi batean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan hainbat jaialditan parte hartuz eta kontzertuak eskainiz ezagu-

tzera eman baziren ere, orkestrak 4 urte besterik ez zituela egin zuen atzerrian lehenengo bira, Frantzian, arrakasta handia lortuz. Orduetik hainbat sari irabazi dituzte, 1989an Mutzigoko hiri frantziarrean ospaturiko lehiaketan urrezko domina lortu zuten, baita Ginebran (2000) eta Kantabrian ere (2001-2002). Zilarrezko hain-

bat domina ere irabazi dituzte; Bischoffwiller-en 1997an ospatutako lehiaketan (Frantzian) eta Castelfidardon, 1997an. 2004ko abenduan ere Austriako hiru hiritan zenbait kontzertu eskaini zituzten.

Orkestra Isidro Larrañagak sortu bazuen ere, 15 bat urte daramatza Isitxo Larrañaga Morenok zuzendari bezala. ◀

datu egin baitituzte. Orain arte kopuru aldetik mugarik ez zegoen; aurtengo, berriz, 12 musikaririk gora duen orkestrarik ezin daiteke aurkeztu. Arau berri honen aurrean, Isidro Larrañaga orkestrak aldaketak egin behar izan ditu antolamenduan, orkestra 3 zatitan banatuz: 2 taldek F sailean hartuko dute parte (12 musikariz osatutako orkestra) eta hirugarrenak E sailean (8 musikariz osatutakoa). Horrela, haien ohiko erreperitorioa 3 talde hauen artean banatu dute.

Urriaren 11n, larunbatean, F sailean joko dute 2 taldeek, eta akordeoiaz gain beste instrumentu batzuk ere erabiliko dituzte. Errusia, Polonia, Frantzia eta Bielorrusiaren aurka ariko dira. Igandean, berriz, E mailan Errusia, Ukraina, Txekiar Errepublika, Norvegia, eta Eslovenia izango dituzte aurkari. Larunbat gauean, ordea, denek elkarrekin jotzeko aukera ezin hobea izango dute Loreton, Castelfidardo ondoko herrixka batean. Bertan haien ohiko erreperitorioa joko dute, eta haien giroan sentituko dira kide guztien berotasunaren laguntzarekin. Epaimahaik igandean jakinaraziko ditu irabazleak. Isitxoren aburuz «maila izugarria izango da, tartean profesionalak ere parte hartuko baitute». Sari ekonomiko bat egoteak ere talde asko animatu ditu, 600 eta 800 eurotako diru-sariak baitaude, kategoria bakoitzaren arabera.

Horrelako bidaia prestatzea ez dela erraza dio Isitxok, «gauza asko antolatu behar baitira»; izan ere, musikariak eta hauen jarraitzaileak ados jartzea ez da gauza erraza. Denak elkarrekin, Castelfidardoko lehiaketara joateaz gain, eta ostegunean Hego Euskal Herrian jai eguna denez, Italiako zenbait txoko ikusteko ere aprobetxatuko dute. Astelehenean, hilak 16, itzuliko dira.

ISITXO LARRAÑAGA ▶ ORKESTRAKO ZUZENDARIA

«Zuzenean jotzeak eta orkestrak betetzen nau gehien»

Isitxo Larrañaga (Tolosa, 1960) bere aitaren izena daramakien orkestraren zuzendaria izateaz gain, izen bera daraman musika eskola ere zuzentzen du. Gainera, bere aitak sortu zuen Xaximiku folk taldearen partaidetako bat izan zen.

Noiz hasi zinen akordeoia jotzen?

Aita ere akordeoi-jolea zen eta berarekin hasi nintzen, 5 edo 6

urterekin. Etxean ez genuen besterik ikusten.

Akordeoia jotzeko denboran nondik ateratzen zenuen?

14 urterekin eskolara joateaz gain asteburuetan hortik zehar jotzen hasi nintzen, koardilenzat, agur-afarrietan... 16 urte bete nituenean ezkontzei ekin nien. Halere, ikasketekin jarraitu nuen eta urte asko eman nituen horrela.

Nola lortu zenuen zure zaleatasuna lanbide bihurtzea?

Aitak musika eskola ireki eta ni atzetik heldu nintzen. Orduko jada musikan oso sartuta nengoen, eta soldaduskatik bueltatu nintzenean berari laguntzen hasi nintzen.

Irakasle, zuzendari... Zerk betetzen zaitu gehien?

Zuzenen jotzeak eta orkestrak. Oso giro polita daukagu. ◀





ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 10a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Euskara Elkartek eta Gazte Taldeak igande honetan Beran egingo duten Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatuta dute. Horretarako lehenbailehen izena eman behar da ohiko tabernetan edo Zumadi eskolan.
Tolosa. 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat Maite Franco ipuin kontalaria izango da gaur, 18:00etatik aurrera, Errota Haur liburutegian.
Tolosaldea. ETB 1eko *Mihiluze* saioa denboraldi berriarekin hasiko da. Bertan bikoteka parte hartzeko, edota publiko bezala joateko, deitu 943 01 17 80 telefono zenbakira.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. *Espereziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratzeko proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

ZINEMA

Tolosa. Euskadiko Gazteria Kontseiluak antolatuta, *Etxebetizta, zeuk daukazu hitza* kanpainaren barruan, gai honen inguruko *El furat* dokumentala eskainiko dute gaur, Antonio Maria Labaien kultur etxean, 19:30etik aurrera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Kantari hasiko al dira abeslari hauek?

TOLOSA ▶ Ez dira Leidor areto eraberrituaren eszenatokia igoko Tolosako Abesbatzen Lehaketan parte hartzeko, baina ez dira oso urruti ibiliko. Izan ere, abesbatza bitxi hau aretoaren parean dagoen Poxpolin dendaren erakusleioan dago ikusgai, hil honen hasieratik. Abesbatzen etorrera dela eta, dendako jabe den Maria Jesus Iraolari papin hauek ezartzearen ideia otu zi-

taion, «Tolosa indartu behar delako eta bere 750. urteurrean zerbait berezia» egin nahi izan duelako. Eta ez du lan erraza burutu, gainera, «aspalditik» zuen egitasmoa izan baita. «Herriarentzat terapia bezala behintzat balio du», azaldu du Iraolak irribarretsu, «erakusleioaren parean geratzen den jende guztiari irribarre bat ateratzen zaio». I. GARCIA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Unai Mendizabal Lasa (Alegia).
Gaur 9 urte. Muxu handi bat eta ondo pasa zure urtebetetze egunean, guraso eta Igor anaiaaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 243.a (2006ko urriaren 6a).
Orrialdeak. 24.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Artea antzerkia da.
Beste gaiak. aiton-amonen festa Leaburun, Betizu Tolosan, *Kutsidazu bidea, Ixabel!* Leidorren, Karlos Linazasorearen *Bestiarria hilerrikoia*.
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
▶ 943 65 50 04.
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 264.a (2005eko urriaren 6a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Lumanetarrei esker ona.
Beste gaiak. Aduna eta Larraulgo haur eta gazteentzat ikastaroak; Asteasuko ziklo kros saioa Lamiategin; Amasa-Villabonako Maite Ortiz, herriko bi presoen senidea.
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkua.
▶ Kale Berria 47, 3. esk.
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com